



AKTEA/06

BERMEOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA (2026-04-21)

Batzarraren izaera:	Ohikoa
Deialdia	1. deialdia
Data:	2026-04-21 (Asteartea)
Lekua:	Udaletxe historikoko Osoko Bilkurako areto nagusia
Hasiera-ordua:	08:35
Amaiera-ordua:	08:39
Alkate-Presidentea:	NEMEH SHOMALY NADIA
Batzordekideak:	ETXEBARRIA TELLERIA ENDIKA ORTUZAR BUTRON XABIER CARUEZO UGALDE MAITE
Bertaratu ez direnak:	URIARTE ANASAGASTI VICTOR GABANTXO URIAGEREKA MIREN KARMELE
Idazkaria:	BAREÑO DUÑABEITIA GOTZON



Aztergaiak

- 1.- Aurreko akta irakurri eta onestea: 2026-04-14 TGB (05)
- 2.- Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik daukaten adieraztea.
- 3.-Artza tabernaren zehapen espedientea hastea onartzea.
4. - Alkatetza dekretuen berri emotea.
- 5.- Eskari eta itaunak

Alkateak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita, batzarra hasi du eta Tokiko Gobernu Batzarreko kideek euren kargua onartu dute. Jarraian, deialdiko aztergaien zerrendan jasota dauden gaiei heldu diete. Emaizta honakoa izan da:

1.- AURREKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA: 2026-04-14 TGB (05)

Bertaratutako batzarkideek 2026ko apirilaren 14ko 05/2026 akta irakurrita, aho batez, onartzea erabaki dute.

2.- BATZARKIDEEK GAI ZERREDAKO PUNTUETAN INTERES PERTSONALIK EDO FAMILIARIK DAUKATEN ADIERAZTEA.

Batzarkideek gai zerrendako puntuetan interes pertsonalik edo familiarik ez daukatela adierazi dute.

3.- ARTZA TABERNAREN ZEHAPEN ESPEDIENTEA HASTEA ONARTZEA.

Xedea

Zehapen espedientearen hasiera: Artza taberna.

Aurrekariak



Lehenengoa.- 2026ko martxoaren 13an, Gernikako Zerga Patruillako eta Mugetako agenteek tabako eta zerga berezien ikuskapena egin zuten Bermeoko Askatasun Bidea 1ean kokatutako Artza tabernan (B95396453).

Salaketa horrek 2026ko martxoaren 31n izan zuen sarrera Bermeoko Udalean.

Bigarrena.- 2026ko apirilaren 15ean, urigintza teknikariak txostena egin zuen.

Argudioak

Lehenengoa.- Aurrekarietan esan den legez, 2026ko martxoaren 13an Gernikako Zerga Patruillako eta Mugetako agenteek Artza tabernan ikuskapena egin ondoren, txostena egin zuten, zeinetan ondorengoa adierazten zen:

DESCRIPCIÓN: En fecha y hora señaladas, agentes de la Patrulla Fiscal y Fronteras de Guernica realizan una inspección de Tabacos e Impuestos Especiales en el BAR ARTZA con CIF: B95396453, situ en Askatasun bidea 1 Bajo, del municipio de Bermeo (Bizkaia), perteneciente a Restauraciones Adon S.L.. Se identifica a la gerente del bar que resulta ser así mismo la administradora de la sociedad limitada. La Ley 1/2016, de 7 de abril, de Atención Integral de Adicciones y Drogodependencias, en su artículo 31, apartado 1a) mantiene que #Se prohíbe la venta o el suministro de bebidas alcohólicas a las personas menores de edad#. Así mismo, en su apartado 6 del mismo artículo la ley menciona que #Todos los lugares aludidos en los apartados precedentes recogerán la prohibición mediante el correspondiente cartel situado en un lugar perfectamente visible#. Tras una visual de la fachada e interior del establecimiento, los agentes constatan que no existe dicho cartel informativo. Preguntado a la dueña del local sobre dónde posee dicho cartel informativo responde que no lo hay. Por ende, se le informa verbalmente que se procederá a la confección del informe-denuncia correspondiente.

Bigarrena.- Zehapen espediente honen objektu diren jarduerak Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 86.a).4 artikuluan zerrendatzen dira:

“Artículo 86. Clases de infracciones.

1. Las infracciones administrativas contempladas en la presente ley se clasifican en leves, graves y muy graves.

2. Se consideran infracciones leves: a) En referencia a las bebidas alcohólicas:

(...)

a.4 Carecer en lugar visible de cartel que advierta de la prohibición de venta a personas menores de edad, en los establecimientos o actividades en los que se vendan bebidas alcohólicas.”

Hirugarrena.- Gernikako Zerga Patruillako eta Mugetako agenteen txostenean zehazten diren gertakarietatik eratorritako arau hausteak arinak dira, Adikzioen



eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 86.a).4 artikulua araberan.

Arau hauste horiei dagokien zehapena, lege beraren 92. Artikulua araberan, honakoa izan daiteke:

“Artículo 92. Cuantía de las sanciones.

1. Las infracciones leves serán sancionadas con apercibimiento o con multa de 30 hasta 600 euros.

La infracción consistente en fumar en lugares prohibidos prevista en el artículo 86.2.b.1 será sancionada con apercibimiento o multa de hasta 30 euros, si la conducta infractora se realiza de forma aislada.”

Laugarrena.- Zigorren graduazioari dagokionez, honakoa dio Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 91. Artikuluak:

“Artículo 91. Graduación de las sanciones.

1. Para la determinación de la cuantía de las multas y la aplicación de las demás sanciones, el órgano competente atenderá a los siguientes criterios de graduación:

- a) Riesgo o perjuicio generado para la salud.*
- b) Grado de culpabilidad o intencionalidad.*
- c) Que la infracción perjudique a personas menores de edad.*
- d) La repercusión social de la infracción.*
- e) Cuantía del beneficio obtenido.*
- f) Capacidad económica de la persona infractora.*
- g) Posición de la persona infractora en el mercado.*
- h) La reiteración y la reincidencia.”*

Bosgarrena.- Honako hau identifikatu da ustezko arduraduntzat:

- Establezimendua: Artza taberna (B95396453).
- Ustezko erantzulea (NAN): 45816959Q

Seigarrena.- Eskumenari dagokionez, hertsatze isunak ezartzeko eskumena Alkatearena da, 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen oinarriak



arautzen dituenaren 21-1-s) artikuluari jarraiki. Hala ere, 2026ko otsailaren 26ko 2026 1131 Alkatetza Dekretuz eskumen hau Tokiko Gobernu Batzarrari eskuordetu ditzaion.

Erabakia

Tokiko Gobernu Batzar honek, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Administrazio erantzukizunik ote dagoen argitzeko 45816959Q NAN zenbakidunaren aurkako zehapen espedientea hastea.

- Ustezko erantzulea: 45816959Q
- Prozeduraren hasiera eragin duten ekintzak edo ez egiteak: *Carecer en lugar visible de cartel que advierta de la prohibición de venta a personas menores de edad, en los establecimientos o actividades en los que se vendan bebidas alcohólicas.*
- Kalifikazioa: Arau hauste arina. (Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzko apirilaren 7ko 1/2016 Legearen 86.a).4. artikulua)
- Legozkiokkeen zehapenak: *apercibimiento o con multa de 30 hasta 600 euros.*

BIGARRENA.- Bermeoko Udaleko Urigintzako AOTa izendatzea zehapen prozeduraren espediente-egile. Pertsona hau errefusatu egin ahal izango da Sektore Publikoen Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeko 24. artikuluan xedatutakoa betez.

HIRUGARRENA.- Espediente ebazteko eskumena daukana Tokiko Gobernu Batzarra dela jakinaraztea interesdunei.

Laugarrena.- Interesdunari jakinaraztea bere erantzukizuna borondatez aitortu ahal izango duela, 39/2015 Legearen 85 artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.

BOSGARRENA.- Interesdunari 10 eguneko epea ematea nahi dituen agiri, alegazio eta informazioak aurkeztu ditzan, edo frogaldia zabaltzea eskatzeko edota erabiliko dituen bideak zehaztuz frogak proposatzeko.



Sinadurea eta data		DOCUMENTO: 20261439402
GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2026 NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2026 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIUERTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2026 10:15:41		Datea: 23/04/2026 Lekua: Bermeon Erregistro unidatea: Erregistro nagusia



SEIGARRENA.- Interesdunari jakinaraztea ebazpen adierazlea emateko gehienezko epea 6 hilekoa dela, zehapen espedientea hasteko erabakia hartu den egunetik zenbatzen hasita.

Hala ere, prozedura interesdunari egotzi dakioken arrazoiren bategatik gelditzen bada ebazteko eta ebazpena jakinarazteko epearen zenbaketa ere, gelditu egingo da. Jakinaraziko zaio, era berean, ebazpena emateko gehienezko epea igaro eta ebazpen adierazlea jakinarazi ez badu, prozedura iraungi egingo dela 39/2015 Legeko 25. artikuluan administrazio-isiltasunari buruz dioenaren arabera. Kasu horretan, iraungitzea adierazten duten ebazpenak jarduketak artxibatzeke aginduko du, eta 95. artikuluan xedatutako ondorioak izango ditu; hau da, prozedura iraungitzeak ez du beste barik norbanakoen edo administrazioaren akzioen preskripzioa ekarriko, ezta preskripzio-epearen zenbaketa geldituko.

ZAZPIGARRENA.- Gernikako Zerga Patruillako eta Mugetako agenteek egindako txostena jakinaraztea egintza honekin batera.

ZORTZIGARRENA.- Interesdunari erabaki honen berri ematea eta jakinaraztea izapide hutsa den egintza dela, eta honen aurka ezin daitekeela errekurtsorik jarri.

10.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMOTEA.

Ez da ezer adierazi.

11.- ESKARI ETA ITAUNAK

Ez da egon eskari eta itaunik.

Eta aztertzeke gai gehiago barik, lehendakariak amaitutzat eman du batzarra goiburuan aitaturako ordu, egun eta lekuan, eta eztabaidaturakoa eta erabakitakoa jasota geratu dadin, nik, idazkariak, agiri hau egin eta izenpetzen dudanak, horren fede ematen dut, lehendakariaren oniritziarekin.

Agiri hau Euskal Autonomia Erkidegoko toki administrazioko zenbakidun



paperean jasoko da.

Bermeoko Udalaren bilkura hau ikus-entzunezko euskarrian grabatu da "20260421_TGB.mp4" izeneko dokumentu digitalean, "Tokiko Gobernu Batzarra 21-04-2026" aktari dagokionean. Akta hori udal-sistema informatikoan gordetzen da, eta haren osotasuna eta egiazkotasuna bermatuta geratzen dira bilkuraren administrazio-espeditente elektronikoari erantsitako dokumentu lektronikoaren bidez, Eta ondorengo Osotasun Kodearekin (SHA-256):

83369e2f0dad46a99d8d1423326e331c3bc8ac45e014b9cf5c3e629b8a9bf111

Euskarri horretan jasota daude bilkuraren eguneroko eztabaidetan parte hartu duten zinegotzien eztabaidak eta bozketak. Akta hau eskuragarri egongo da hurrengo helbide honetako atari pribatuan:

<https://bideoakta.bermeokoudala.eus/bermeo/pribatua>

Orri oinean sinatzaileak eta datak



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07EA0015F6AA00D7L4U9N5R2J5

Sinadurea eta data

GOTZON BAREÑO DUÑABEITIA-IDAZKARI NAGUSIA - 23/04/2026
NADIA NEMEH SHOMALY-BERMEOKO ALKATEA - 23/04/2026
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACION Y SERVICIOS IZENPE S.A., C=ES - 23/04/2026 10:15:41

DOCUMENTO: 20261439402

Fecha: 23/04/2026
Lekua: Bermeon
Erregistro unidatea:
Erregistro nagusia

CSV: 07EA0015F6AA00D7L4U9N5R2J5

